

Fco. Javier Mangado Urdaniz

IV-1992

Nafarra Biologian Lizentziaduna dugu.

Gaur egun Fisika eta Kimikan Katedraduna da Biurdana Institutuan.

Ikastetxe honetan euskararen inguruko itzulpen eta koordinazio lanak egiten ditu.

Hainbat liburu itzuli ditu. Literaturgintzan eta ikus-entzunezkoetan kolaborazioak egin ditu (BIM, Euskalerria Irratian, ETB1ean).

Zenbait literatur sari ere eskuratu ditu: Iruñeko Udalaren literatur lehiaketak: akzesita, 3. eta 2. sariak 1988, 1989, 1993, 1994, 1995 eta 1997. urteetan. Iruñeko Udalaren Udako Lehiaketaren 1. saria 1997an, Radio Nacional-ek Nafarroan antolaturiko lehiaketaren 1. saria 1989an, e.a.

«ROCKY» ZAHARRAREN HERIOTZA

Lerroak gara,
zirkunferentzia ukitu baino
egiten ez duten zuzen tangenteak,
zirkulu barruan sartzen ez direnak

José M. San Juan,
«Requiem por todos nosotros»



Goiz honetan eguzkiak atera nahi ez duela ematen du. Ortziak, kolore ilunaz kutsatuta, lurraren gainera erortzekotan dago arimari estutasuna eraginez. Hotza.

Iruñeko negu-udaberriko tarte mugaezinak agertzen duen hotz sakona, gogorra, barnean hondo-hondoraino sartzeko modukoa; ezagutzen ez duena ohartu gabe harrapatu ezkero, aste batetarako ohera araziko lukeena.

Arimak, ingurugiroak bultzatuta, gorputzaren barruan murgildu nahiago du, sentimendua karrikaratu baino.

Munduko beste leku batean eguzkia bete-betean izanen da, inongo zalantzarik gabe. Batek lerrakeenez, bizitzeko hobe litzateke gure hiri txiki eta hotz hau baino. Baliteke egia izatea. Izan ere, ikasketak amaituta, behin baino gehiagotan azaldu nion neure buruari halako beste leku batetara jotzea.

«Mundua zabala duk, Joxe. Zergatik txoko hotz eta xume honetan usteltzea?» Baina azkenean burmuinak bihotzari eman

zion amore barruko lehia horretan, eta bertan gelditzea erabaki nuen. «Hemen dituk lagunak eta ingurugiroa. Zer gehiagoren beharrean hago, motel?»

Amaigabeko pasiluak zeharkatu eta gero kanpora atera naizenerako, hori izan da nabaritu dudan sentsazio nagusiena: hotza. Lepoko ertzak jasotzera behartzen nauen hotza. Ospitalean utzi berria dudan beroa gogora ekartzen didan hotza eta hori, kontraerrana bada ere, atseginez hartu du ene buruak, pasa berriak diren gaueko ordu luzeak, amaigabeak, aire hotz honetan desleitu bailiran. Zainduriko larrialdiak –bapateko apindizitis-krisia gauerdi aldera, sindromeak jotako drogazalea goizaldiko bosterdietan, ezdakit-zer zeukan ohizko agurea edonoiz– ohikeriaz errepikatuak ziren honetan ere, sekulan gertatu ez zitzaizkidan bezala. «Nehork ez diat urjentziazko txanda egin nahi, Joxe. Hobe duk lehen baino lehen beste bati bizkargaineraztea».

Gero, beste anitzetan bezala lagunen aholkua bazterrean utzirik, nerea egin nuen eta denon artean ezatseginak banatzeko asmoz edo, agian hobe erranik, nere ohizko lo egin eza betetzeko, zerbitzu hartan irautea erabaki nuen.

Ez da horren gaiztoa, ongi ikusirik. Gaueko ordu luzeetan bakartasuna nabaria izaten da maiz. Eta bakartasuna ona da noizbait nor bere buruarekin solasean egoteko, kanpoko mundu zaratatsuan aurkitzeko modurik ez dauden isilgune eztiak poliki-poliki gozatu ahal izateko.

«Burutik jota haiz, Joxe. Ez zekiat nola duan gustokoa gauez lan egitea, besteok libertitzen ari gaituela».

Urjentziak sailean aritzeari beste erabaki xelebre bat gehitu zitzaion, ene lagunen ustez: kotxea ez erabiltzea. Hori ere ulergaitza suertatzen zaie –«hi ere ekologista hala?»–.

Nola adierazi bai kotxearena, bai lanpostuarena nagiaren eraginpeko erabakiak zirela? Nola ulertarazi kotxeak zaintzeko orduan dakarzkidan buruhausteak jasanezinak zaizkidala? Eta aipaturiko hau guztia ezezik, nola azaldu kotxeak goizeko ordu paregabe horiek gozatzeko tenorea oztopatzen didala? Lan ustela izanen

zelakoan soinak herstea baino ez nien eskenitzen, lahen bait lehen gaiaz aldatzeko asmoz.

Baliteke, dena den, «xelebrekeri» horien guztien zergatia hemen gelditzeko erabakiaren mendekua izatea. «Ez hintzen, Joxe, bizitza goiti behera aldatzen menderatu. Alda ezak bizimodua behinik behin.»

Autobus geltokirainoko bidea loretokiz mugatuta dago bi ertzeetan. Lorezainak arotik kanpo ezarririko landareak primadera hasiera berandutu honi eusten saiatzen zaizkio itxura errukigarria azalduz.

Hosto iraunkorren arbol luzeak, hainbeste eta hainbeste estualdiren lekuko, ikasle aritzen nintzen garaikoak dira, bide berbera egunero ibiltzen nuenean. Gibelera bultzatu didate denbora une txiki batez, baina autobusaren goikaldea laisterka hesiaren gainetik ikusteak nere urratsak arintzera behartu nau berehalaxe. Geltokiraino heltzean, ospitalaren esparruko harrizko atea zeharkaturik, presaka ibiltzeko beharrik ez zegoela egiaztatu dut, hainbestetan bezalaxe, ilada luze xamarra zai zegoelako.

Bi aukera etorri zaizkit burura: ene goizeko paseatxoetan hasteko irrikitan banengoen ere, zerurako begirada labur berri batek uxatu dit burutik lehendabiziko aukera, eta autobusean igotzea erabaki dut.

Azken polizia-kotxearen sirenotsa itzali berria zen plastikozko zinta zuri-gorriari, atariko euskarria, ezkia eta farola inguratuta, agente luze batek korapiloa eman zionerako.

Arratsargi epela bioletaren ñir-ñirrak kutsatzen zuen agenteen uniforme urdinak nahiz inspektoreen jaka ilunak nahasiz. Bertan, atari estuaren barruan, ahots nahasiak ziren adigarri, kanpoan pilatzen ari zen jendearen marmarra nagusitzen zen bitartean.

–«Zuek biok! Kendu hortik jende hori, itotzear gaude eta.»

Bi agente sarjentuaren agindua betetzera abiaru ziren agudo. Horrek keinua egitean atearen kontra jotako ostikadak minduta, barrura itzuli zen biraoka.

Ezkiak hiru urtetan behin loratzen omen dira, eta orduan omen zen haien lurrin berezia zeriela. Gutxi barru karrika osoa hortaz kutsatuko da nonbait.

Anbulantziaren hots ozena eta zorrotza gainerako guztiei gehitu baitzien, bi inspektoreak eta sarjentua, gibeletik zerraiela, atariko barrualdetik irten ziren. Anbulantziak maniobra egin zuen pilaturiko jendea uxatuz, gibeleko sarbidea atari ilunaren aitzin-aitzinean kokatzeko moduan.

Zuriz jantziriko bi erizain aitzinaldetik atera ziren tokia behar zen bezain zabala mantentzen saiatuz, eta polizien txistuen hotsak ohetilako hanka distirtsuek automatikoki zabaltzekotan egin zutenarekin nahasi ziren.

Bi inspektoreetariko bat, antzaz nagusiena, atariaren barruan zirauen epaileari zuzendu zitzaion eginbeharrari ekiteko baimena eske. Besteak, buruko keinu hotz batez, baietza adierazi zion.

Hiru polizia sartu ziren segidan. Luzeenak, lehen esparrua mugatzeko zinta lotu zuenak, lurrean etzanda zegoen gorputz ilun baten aldera abiatu zen eta kolpe seko batez manta bat jaso zuen. Bertan zeuden bizpahiru argazkilariren flashen eraginez zerraldoaren aurpegia ikusgarri azaldu zen une labur batez.

Berrogeitamapiko urtetako gizon bat zen, beltzarana. Larru ilunak, urtaroa gorabehera, eguzkiak luze jo zuela saiatzen zuen.

–«Hi, zer duk hor barruan?»

–«Ez zekiat. Tipo bat akabo omen diate»

–«Droga kontuak edo».

Erizainek arestian biziak zeragion gorputz mardul hura ohetilaren gainera igo zuten amen batean. Sarjentuaren ahots sendoak poliziak berriz bultzatu zituen bertan bildurikoak baztertzera. Zarata areagotu egin zen polizien txistu, anbulantziaren sirenots eta kotxeen motorrek eraginik.

Ezkia aurten lurrina zabaltzeko omen daude.

«DELE UN CAPRICHO A SU BAÑO… mámparas, diseños…»

Adi egon beharra dago bonobus txartela zirrikuan sartu ondoren autobuseko beste muturraren aurka zaplasteko bat ez ematearren. Ez du horrek arazo haundirik suposatzen behin ohitura izanik; ustekabe harrapatzen zaitu lehendabizikoetan, baina gero, txartelarena bete bezain agudo gibelera jotzen duzu automatikoki, pentsatu ere egin gabe.

Etorbideko etxandiak bi aldeetatik igarotzen dira tente, tinko, errebista pasatzeko soldadu isil eta behartuak bezalakoak, mili garaian gertatzen zen antzera.

Unibertso bitxia da autobus baten barrukoa. Bidaiarena baino beste loturarik ez duen giza-multzoa. Soziologia arloan ikasten den «gizatalde» kontzeptuarekin zerikusi haundirik ez duena, berez gizatalde bat izanagatik. Gizatalde higikaria da, bai, «nomada» nola edo hala (batek erratua leritzoke).

Batzuetan, une berezietan, «ordu bero» izenekoetan batez ere, edo ibilaldi zehatzetan, behin-behineko gizatalde hori iraunkor bilakatzen da, gizaseme berberek egiten baitute bat hiri-bidaia dela eta.

Esate baterako, bulego ilun batean arratsaldeko bostak artio jubilazioa hartzeko garaia buruan izaten duela iharduten duen gizarajo burusoil, bibotedun, itxuraz ahul hori; gozodenda, lurrindegi edo arropadenda batean lan egiten duen neska lirain hura, eseritzerakoan lotsati belaunak elkartu eta gona jeitsi egiten dituena, gero oporraldietan, modako hondartzetan «top less»-ari inongo arazorik gabe ekinen diolarik. Eta ni bezalako bat, ikasketak bukatu berriak dituen mediku (mediku?) ajolagabea, bere burua astintzeko urjentziazko txandak onartu dituena, besteen kontraerranak ongi ikusita berarenez jabetzen ez dena.

Hiruron begiradek ere bateren batean topo egin dute, baina beheiti jo dugu berehalaxe, hori lotsagarritzat hartu baikenukeen. «Gizataldea» finkatzeko beldurra, zalantzarik gabe. Soziologoek ikastea merezi duen fenomenoa. Lerroak gara, zirkunferentzia

ukitu baino egiten ez duten zuzen tangenteak, zirkulu barruan sartzen ez direnak.

Gizataldearen higidura gertatzen da berriz. Multzoaren aldentzea da, bere antolamendu ahul eta xumearekin batera, geldiune bakoitzean betirako xedearen xerka balebil bezala. Baina alferrik: taldekideak amankomunean dugun egitura sendo bakarra, autobusa alegia, ohizko lekuetaranz abiatzen da berriz, eta eguneroko toki finko bakoitzean gertatzen da gizataldea deuseztatzea; neska liraina (argala ote?) da lehendabizi jeisten dena, gizataldearen desegiteari horrela hasiera emanez. Eta bulegari meheak (ultzerak jota?) so egiten dio, goizero bezala, joandako gaztaroaren minez; begiradak salatzen dio, izan ere.

Gero, hurrengo geldiunean, gizataldearen desegitea beteko da bulegari eta biok autobusetik jeitsiko garenean.

Nere bidaiakidea da normalean aldentzen den lehendabizikoa: lanean hasi behar eta lana bukatuta izatearen arteko ezberdintasuna da.

Gaur astelehena dugu, eta astelehenetan gertatzen den bezala, neska lirainak betazpiak azaltzen ditu. Asteburuaren ondorioak, edo begiak apaintzeko betarik eza. Betaurrekoak janzten ditu normalean, baina gaur ahantzi egin zaizkio nonbait. Bulegariak, berriz, eguneroko itxura dakarkigu. Bizimodu arruntean berdinak dira astegunak eta asteburuak. Gizaseme grisaren patua.

Hauetan nengoela, azken geldiuneraino ekarri gaitu autobusak. Jende multzo bat sartu da une berean, eta eserlekutik jeiki naizenerako desagertu da bulegari iluna, goibela.

Ezkiak zai ditugu, espaloian, primadera hurbilaren minez, autobusarekin batera geratu den ilada mugikor batean.

Poliki jeisten dut gibeleko eskailera estua. Berehalaxe egiten zait nabaria goizeko hotza. Hotz sakon eta madarikatu hori, hezurretaraino sartzen dena.

Xamarraren lepokoa jasota, nik ere alde egiten diot gizataldeari, zuzen tangentea, zirkunferentzia behin behinik ukitu ondoren.

Autobusaren burrunba galtzen da etorbidean barna, beste gizatalde bat kargatuta, zuzen tangentez berriz beterik.

–«Zure esanetara, jauna. Hona hemen txostena».

–«Egun on, sarjentua. Zeozer berririk?». Eta botatzarrek elkar jotzean eginiko hotsa gela osoan barna zabaldu zen.

–«Gutxi gora behera, dagoenekotz jakin duguna, jauna. Besterik ez».

–«Arakatu ohizko lekuak, sarjentua; ea zerbait aurkitzen duzun. Hala ere, kasu honi artxibo usaina dario».

Sarjentuaren bekartea zimurtu egin zen arinki, bera ongi ezagutuko lukeen bateren bat ezik ez ohartzeko moduan. Horrela ere komisarioaren aurpegiak beheiti jo zuen, mahai gainera, jaso berria zuen txostena irakurtzekotan baina ezer irakurri gabe. Keinu horren erranahia ongi baino hobeki ezagutzen zuen sarjentuak: gelatik irteteko agindua zen, gela berberean aldez aurretik egoniko komisario guztiek erabilia zutena.

«Honek ere ondo ikasia duk» –erran zuen bere baitan sarjentuak. Gizon sendoa zen sarjentua, berrogei urte beteta zeuzkana. Gaztaroan bere gorputza behar den bezala lantzearren emaniko ordu luzeak engoitik nabariak ziren bere itxura fisikoan.

Baina joeraz ez zen goiti jotzearren edozer egiteko gauza direnen gisakoa izan, eta horregatik sarjentu zirauen, hori eta gehiagorako merituak eta adina soberan bazituen ere.

Bere begiradak topo egin zuen alboko pareta eta zoluan kanpotik sarturiko argi tintinari, ñir-ñir ahulak erdi-jeitsiriko pertsiana zeharkaturik marrazten zituen lerro zurixkekin, bueltaerdi ematean. Lehenengoaren antzeko botatzar-kolpe sekoari atea ixtearen hotsak jarraitu zion, eta horrek eman zion komisarioari begiak berriz jasotzeko seinalea. «Arrana hori...», pentsatu zuen komisarioak, hondo-hondoan baitzekien sarjentuaren zintzotasunak ez ziola bere buruari kasu bat argitzeko ahalegin guztiak egin gabe bukatutzat emateko baimenarik emanen. Eta burua alde batetik bestera kulunkatu zuen mingaina klaskatuz.

Tamalez bizitzak ongi ezagutarazi zion sarjentuari agente distiratsuak, zintzo jotzen dutenak eta garaile beti suertatzen direnak pelikuletan eta eleberrietan baino ez direla izaten. Ondasuna eta gaiztasuna bi mutur motz eta estuak dira, haien artean pasabide luze, zabal eta ugaria sakabanatzen delarik: epeltasuna.

Azken hau komisarioak «ongi ikasia du», Arana betirako sarjentuak liokeenez. Hura zela eta komisario izatea.

Gibelera bultzatu zuen eserleku mugikorra txostena erosoago irakurtzeko.

IRUÑEKO KOMISALDEGIA
2723. testifiku-txostena
Iruña, 1989ko martxoaren 27a

Komisario Jaun Agurgarri hori:

Data-egunaren arratseko bederatzietan 112 zenbakidun auto-patruila komisaldegi honetn jasoriko dei bat egiaztatzera Etorbide Nagusira abiatu da.

Bertan, 58 zenbakidun atari ondoan gizon bat ari zen keinuka atari barruan gorpu bat aurkitu zuela erranez. Galdetu eta, atezaina zela adierazi du.

Aipaturiko ataria sarturik, gizon bat zegoen etzanda ondoko gela baten ate ondoan, eskaileratik eta igogailuaren sarbidetik ez ikusteko moduan.

Errutineko ikerketak beteta, behin hilik zegoela egiaztaturik, epaileari mandatua bidali diogu, beharrezko babes-neurriak prestatzeari ekin diogularik.

Bederatzi t'erdietan heldu da epailea. Gorpua jasotzeko baimena emanda, anbulantziari eta forenseari dei egin diegu, hamarrak laurden gutxiagotan gorpua jasotzearekin zerbitzua bukatutzat eman dugularik.

Gorpuaren behin-behineko deskribapena gehitzan zaio txosten honi gainerako beste xehetasunak bai forense, bai epaileak gauzaturiko txostenetan zehatzago ageriko direlakoan.

Jaungoikoak babes zaitzan.

Patruilaren arduraduna

Jose Miguel Arana

Sarjentua

KOMISARIO JAUN AGURGARRIA

Orri honi josita, bigarren ori bat zegoen. Komisarioak, keinu gogor batez, pasatu baino jaurtiki egin zuen lehenengoa, bigarrena irakurtzen hasteko.

BEHIN-BEHINEKO DESKRIBAPENA
2723. testifiku-txostenari dagokiona

Sexu: gizonezkoa

Arraza: zuria

Adina: 53-55 urte (ustez)

Altuera: 177 cm

Ile kolorea: beltza (zuritzen hasita)

Begi kolorea: ñabarra

NAN: —

Pasaportea: —

Bizilekua: —

Datu pertsonalak: —

Ezaugarri bereziak: Larruazal ilundua, baina ez zaio ijito itxurarik antzematen. Bizarra luzea, eskas apaindua.

Oharrak: Ez zaio inongo agiririk aurkitu. Ez dago, beraz, hildakoa identifikatzeko modurik.

Muxin zakar batez, komisarioak txostena mahai gainean bota zuen. Jeiki zen, segidan, gogorik gabe eta metalezko artxibo baten aldera abiatu zen, berriz txostena eskuetan zeramala. Hots zorrotza egin zuen hirugarren kaxoiak, goitik hasita, irikitzekotan.

Bertatik karpeta bat ihalgi zuen komisarioak: barruan zeuden paper batzu baztertu zituen karpetari eusten zion eskuaren hatzez, beste eskuak jasotzen zuen txostena erortzen uzteko. Karpeta berriz ixtean, artxibo-kaxoian sartu baino lehen, izenburua zeharka igaro zitzaion begietatik:

«Ebatzi gabeak».

Zerbitzaria alde batetik bestera dabil korrika eta presaka, beti bezala. Goizeko ordu hauetan ez dago jende haundirik kafetegian: zortzietan lanean hasten direnak joanak dira dagoenekotz, eta beranduago arituko direnak ez dira engoitik heldu.

Baina zerbitzariak antzaz lanpeturik dihardu. Ohituraren poderioz nonbait. Eta ogibidearen kaltez.

–«Egun on, on Jose. Betikoa?»

Zapikutxak mahai batetik bestera egiten du jauzia. Zapiak mahai gainetik egiten du irrista. Erretiluak ene buruaren ondotik egiten du zistua.

–«Bai Tomas». –baina ez dit ezta aditu ere egin, lurunezko kafegailura abia baita agudo.

Aretoa, nahiko haundia, modernoa da, inpertsonala. Munduko edozein hiritan nengokeela pentsarazteko modukoa, Tomas zerbitzariaren solasaldi motz eta urduriagatik ez balitz.

«Hari musikalaz» Eddy Gormet-en ahots goxoa aire geldo, artifizialean sakabanatzen da mantsoki: *«…ojos negros, piel canela, que me llevan a desesperar…»*. Leku beroagoen oroitzapenak dakarzki. Ez dator bat, inolaz ere, kristalezko atetik ikusten dudan euri motz hasi berriarekin. Lekuz kanpoko gezia, guztiz hiritarra den ingurugiro hau zeharkatuz. Baina bost ajola! Dirudienez, nehor ez da konturatzen, nehor ez da *«si perdiese el arco iris su belleza, y las flores su perfume y su color…»* kezka horretaz jabetzen. Ez dago «zirkulu» honetan poesia hori dastatzeko betarik. Tomas da horren lekuko. Hobeak dira, nonbait, politika berriak, edo kirol berriak, edota eskelak ere nazioarteko gosaria, kafesne-ta-croissant jatorri gabea laguntzeko, izarrik gabeko unibertsoa, edo sakontasunarik gabeko itsaso zabala (hori ergelkeria!) baino.

Horrela ematen dute aditzera egunkaria irakurtzen diharduten hiruzpalau bezero bakanduek, zuzen tangenteak haiek ere, kafetegiko habitat honek baino osatzen ez duen behin-behineko gizatalde hauskorrean.

Azken finean *«square»* baino ez dira, Sacha ene adiskideak liokeenez. Tipo bitxia da Sacha hori. Kafetegi honetan bertan ezagutu nuen. Egunkariak saltzen ditu, horretarako baimenik ez duen

arren, aitzina jotzeko. Egunkari saltzaile bat omen du lagun, eta horri esker ale batzu eskuratzen ditu ezkuturik saltzeko. Taberna batzuetan eta baita kafetegi honetan ere ez diote kontutan hartzen, ez-ikustearena eginez. Gutxi barru helduko da.

Ongi etorriko zait. Gaur goizean nehorrekin mintzatu nahi nuke. Agian nere barrua zuritzeko. Eguraldi goibela dela kausa edo.

Honelako egun batean hasi ginen elkarrekin hizketan. Egunero erosten nion egunkaria, baina egun hartaraino ez nintzen begietan azaltzen zitzaion distira bizi horretaz jabetu. Begiak dira gizaki batez gehien jakinarazten dutenak. Eta begi haiek berritsuak iruditu zitzaizkidan; bizia, anitz bizi duen xarmaz kutsatuak, eta horrexegatik, agian, nekatuak.

Enekin eseritzera gonbidatu nuen. Kafesnea eskeini nion, baina ardo gorria nahiago zuela erantzun zidan. Harritu ninduen une batez, egia erran, moskor itxurazkoa ez zela kontutan harturik. Berak berehalaxe igarri zidan.

–«Ez dago ardo gorri on bat bezalakorik»– gehitu zuen bere hizkerari frantses kutsu arin bat zeriola.

Neonezko argi epela arrotza suertatzen zen bere larruazal beltzaranean isladaturik. Ortziarena zen gizon horrek zuen argirik ezagunena, zalantzarik gabe.

–«Bizitza kaka zaharra duk»– bota zuen draskada motz bat kopari eman ondoren.

Ardo gorriak leinuru bereziak piztu zizkion ezpainetako bi muturretan. Begiak bezain distiratsuak ziren zegoenekotz; bizarraren ohianean harrapaturiko bi izar txikiren gisan.

Nahasturiko euli bat zebilen mahaitik eserlekura hegan. Sachak bezala, denbora eta lekuz kanpo ziharduela ematen zuen.

Etorbideko ezkiak dardarka ari ziren negu-primaderako euripean. Hostoak, iparraizeak (beti iparraize hotza) bultzaturik, aldi berbereranz kulunkatzen ziren.

–«Leku hau '*square*' duk»– isilgunea Sachak ebaki zuen, eserlekuan gibelera jota.

–«Musika hau ere '*square*' hutsa duk»

–«...»

–«Rock-a duk egiazko musika, *mon ami*. Baina aintzinekoa, rock xahua, garbia, ez-kutsatua»– eta eskua koparanz luzatu zuen berriz.

Niri, egia erran, bost ajola rocka; bost ajola musika. Agian nerau ere '*square*' hutsa naiz, Sachak dioen bezala.

Duela ordu bete eskasa ene ondoan zeudenek heriotza zuten kezka bakarra, burutik zebilkien beldurrik nagusiena. Orain berriz, tipo hori rock eta ardo gorriari buruz mintzatzen zait. Bizitza beraren oinarrizko kontraerrana. Zirkulu bereizleak espazio borobil batean. Erlatibozko zirkuluak, hala ere, beste mutur batetik agian ukitu ezezik sakonki elkartu egiten direnak.

Eta tartean gizon luze bizardun hori, begi bizi eta nekatuak, espainiar *desarroiloko* mila hondartzetako ortzipean belzturiko larruazal beltzarana beste munduari, mundu *square* horri mesprezuzko keinua egiten aritzen zaizkio aspalditik, betidanik.

Harez geroztik anitzetan ari izan ginen elkarrekiko solasean. Batzutan, hala ere, bere umorerik eza eta beste batzutan neurea zela medio, agurra ezik hitzik gabe ahotik eskeintzen ibiltzen zen gure goizeroko harremana, egunkariarena.

Besteen begiak irakurtzen ikasi nuen; berak bereak irakurtzen irakatsi zidan, hobe erranik, *méthèque* itxurazko horrek –«Moustaki motel, Moustaki duk benetako kantari bakarra, sines zaidak. Ai, rock-ari ekin balio...»– ongi baino hobe baitzekien edozein begirada irakurtzen.

Halako batean bolada luzexka eman zuen kafetegitik ageri gabe. Ez zidan tutik ere aipatu itzuli zenean, baina ongi ulertu nuen oxigeno berriaren beharrean zegoelako izan zela. Eguzkiaren minez. Zirkulu hau estuegi hasi zitzaion bere izaerari, tangente perfektoa; zuzen baino, lerro kurbatua, mila zirkulu ukitu ahal izateko –«neska anitz zeudek, *mon ami*. Zergatik bakar batzu ezagutzearekin konformatu? Haien xerka joan baino ez duk egiterik. Ah!, *squarerik* ez. Ez zegok *squarerik* maitatzerik.»

Gaur ere berandu xamar dabil nonbait. Eddy Gormet-en ahotsak beste bati utzi dio lekua. Hau ere leuna da, atsegina, ingeleraz kantatu arren.

Euliak, asperturik, alde egin du. Edo hil, auskalo. Eta Tomasek eusten dio bere eginbeharrari (oraingoan dagoenekotz ez lehen bezain fiktzizioa) kafetegiko zirkulu square-karratuaren barruan, irten ezinean.

Kanpoko euria areagotu egin du. Ez da harritzekorik, beraz, Sacha bezalako batek eguzkiaren minez hanka egin izatea. Hilabete anitz izan dira eguzkia gozatu gabe.

Ezkien hostoek amore eman diote euriak astintzeari, eta beheiti jo dute. Eguraldiak jendea bultzatzen du kafetegi aldera, Tomas bere saltsan ari delarik. Zoriona bitxia da. Tomasena kafetegi itxi eta itogarri honetan datza nonbait, kafesne eta croissanteen artean, bere erretilu eta bere zapiaren arteko hutsune estuan. Sacharena ez. Mugagabeko lerro berde-urdin, luze eta helduezin batean dago. Tomasena hurbilagoa da, baina estua. Sacharena zabalagoa da, baina urruna, ukaezina. Eta neurea? Korridore zuri eta luzeetan datza, ote? Zaila da bakoitzaren zoriona definitzea. Hobe da besteenetan ihardutea. Guztiak, azken finean, gezurrezkoak dira...

–«Berehalaxe!»

Beste kafe bat, hutsa hau, eskatzen diot Tomasi, Sacharen zain nagoen bitartean zeozer egitearren, atsegin nukeelako baino.

Alferrik. Draskada bakar batez irentsi dut egon ezinean. Sacharen izaera argia, zuria, beharko nuke nerea ere zuritzeko.

Brasildar aztiek etorkizuna asmatzen omen dute kafe-katiluaren ondarrak aztertzekotan. Baliteke. Etorkizuna zoriona bezain bitxia da, jostazalea. Eta gizakiokin jolasten da haiek menperatu nahi duten bakoitzean.

Agian gauza bera, hain zuzen ere, gertatu zait Sacharekin. Agian ura eskuetan jasotzen saiatzea bezain alferra da berarengandik zeozeren zain egotea. Zirkulu baten barruan gartzelaraztea bezala izanen litzateke, bera, tangente perfektoa, bihurria; eta ez

dago tangenterik zirkuluratzerik. Hori bulegari-ilun-burusoil-jubilatugai eta neska-dendari-sasilotsatientzat da egokia. Besterik ez.

Azken finean neronek ere ez nintzen ene tenorean dagokidan zirkulua apurtzen ausartu. Besteen antzera jokatu nuen, gehienen antzera. Ez dut, beraz, inongo eskubiderik bestelako erabakia hartu zuenari bereari atxekitzeko eskubidea ukatzeko.

Kanpoko euria nabaria zait kafetegiaren irteerara hurbildu ahala. Haize-korronte hotzak jaso ditut Sacha non legokeen ez dakidala, baina eguzkipean bizitzari den-dena eskatzen lihardiokeelakoan nagoen bitartean.

Ez dut gehiagorik gogoratzen.

Iratzargailuaren hotsak goizeko zortziak adierazi zituen ozenki eta zorrotz. Gizona, nagiari uko eginez, ohetik jeiki zen gogo haundirik gabe.

Aspalditik lortu zuen astelehena lanean libratzea, eta aspalditik ere astelehen goizeko lehendabiziko ordu haiek korrikari ekiteko erabiltzen zituen. Sasoi fisikoa mantentzeko, batez ere. Polizia sarjentua izateak holakoa eskatzen baitzion, edo hura zen bere iritzia behinik behin.

Hala eta guztiz ere, goiz goibel hartan ez zuen kirolari ekiteko gogo haundirik. Bezperako pasadizoa buruan zebilkion engoitik, eta dartada latza nabaria zuen aho sabaian.

Ohikeriak bultzatuta logelako armairura abiatu zen txandal bat janzteko asmoz, baina aulki batean zegoen uniformea ikusi zuen nahigabe.

Aldendu egin zen keinu zakar batez aulkiondotik, armairuko atea bortizki irekitzeko. Txandala jasotzen zuen kakoa eskukada batez bazterturik, jantzi arrunt bat, jaka eta prakak, atera eta ohe gainean bota zuen. Dutxa hotz bat hartzea erabaki zuen, haserrea baretzeko, batez ere.

Eskuoihala soinaren kontra indarrez igurtzeak odola larruazaleratu zion, lasaitasuna nabaria izan zitzaiolarik. Ur hotzaren gai-

tasun hori ongi baino hobe ezagutzen zuen gizonak kirolari ekiten zion garaietatik.

Urratsak, gero, sukaldera zuzendu zituen gosaria prestatzeko asmoz, baina etxea inoiz baino haundiago eta inoiz baino bakartiagoa iruditu zitzaion. Behin baino gehiagotan, ama hil ondoren, etxetzar hura saldu eta auzo berri batetara, apartamentu moderno eta funtzionaletariko batetara jotzea deliberatu zuen, baina erabakia gerorako gelditzen zen beti. Familiaren oroimena edo.

Halako hartan, halaber, jasanezina zitzaion etxeko bakardadea. Bere ohituraz bestera, etxetik at gosaltzeari egokiago iritzi zion.

Sukaldean sartu gabe, logelara itzuli zen eta gogo haundirik gabe hasi zen janzten. Atorra, prakak, galtzetinak... gerrikoa lotu eta zapatak janzterakoan, aulkiaren gainean oina jarri zuenean, pistola ikusi zuen zorroan sarturik, bizkarraldean eskegita.

Pistola hartu eta lotzea izan zen lehendabiziko keinu automatikoa, egunero bezala; baina uniformea ordez jantzi arrunta zeramala ohartzean, pistola traba baino ez zitzaiola argi eta garbi zegoen.

Orduan etxean beste pistola bat zeukala oroitu zen, aita zenarena, egongelako armairuaren goiko kutxan amak gordeta zuena.

Aita komisarioa izana zen bere garaian, baina hilik suertatu zen lanean ziharduen batean, semea engoitik txikia zela. Harez geroztik senarraren gauza eskas batzu han gordeta izatea erabaki zuen amak, batez ere bere lan izanarekin zerikusia zutenak, semeak aitaren ogibideari ez ekiteko asmotan nonbait. Azkenik alferra suertatu zitzaion ahalegina, semeak aitaren urratsei jarraiki nahi izan baitzien.

Behin, ama hil ondoren, gizonak pistolarekin eta baita gainerako beste oroitkarriekin egin zuen topo, trastu zaharrak zuritzeko armairua arakatu zuenean. Gauza batzu bota eta beste batzu bertan behera uztea erabaki zuen, eta kontserbatu zituenen artean, aitaren pistola, izan ere.

Egongelara, beraz, abiatu zen gizona jaka jantzi baino lehen. Han, aulki bat hartu eta armairuko goiko kutxa iriki zuen.

Bilaturikoa luze gabe aurkitu zuen. Bertan zegoen, egunkari zahar baten orriez bildurik, urteetako hautsak dexente estaltzen zuelarik.

Andela alde batean utzirik, begirune eta jakinahiaren arteko zirraraz hasi zen hedea askatzen, poliki, zeremoniaz. Gero zorroa. Goiko estalkia lotzen zuen botoia «klik» batez libratu zuen.

Dardar sotil batek zeragien gizonaren eskuei haien artean aita zenaren pistola hartzerakoan. Berrogei-ta-bosteko modeloko *Browning* bat, herdoilaren aztarna harat-hunat, nahiko itxurazkoa engoitik.

Morroiloa erraz labaindu zen gizonaren eskuen trebetasunari amore emanda. Kargadorea pistolako euskarriaren behekaldetik ihalgi zen bere altzairuzko ariman hiru bala azalduz.

Eskukada seko batek itzuli zuen kargadorea bere baitara, eta pistola zorro barruan sartu zuen berriz seguruari eragin ondoren.

Gizonak hedea sorbaldari lotu zion gero zorroa besopean egokitzeko bizpahiru aldiz astindu zuelarik.

Logelara itzuli zen jaka janztera. Egia zen. Ispiluari begirada batek polizia zaharrei aditurikoa egiaztatu zion. Aintzineko pistolak egunekoak baino anitzez ere hobe egokitzen zaizkio giza-gorputzari. Ez zen deus ikusten jakapean kanpotik ikusirik.

Besoak alde batetik bestera astindu zituen era guztietako mugimenduen erosotasuna baieztatzeko. Ez zen eragozpenik ñimiñoenaz ere ohartu.

Leihotik begiratu zuen eguraldia ezagutzeko. Ilunduta zegoen engoitik. «Hobe duk gabardina janztea» –erran zuen bere baitan.

Armairua ireki, jantzi batzu baztertu, gabardina eskuratu eta kanpora abiatu zen segidan.

Karrikako hotzak gizona lepoko ertzak jasotzera behartu zuen. Euria gogor ari zuen, baina hala ere euritakorik erabiltzea sekulan gustokoa izan ez zuenez, karrika ertzetik estu-estu ibili nahiago zuen etxera haren bila itzuli baino.

Karrikaz karrika ibili zen noraezean, euripean, hegien xerka eten gabe euriak beharturik, itazurrei txiri egiten saiatuz. Baina alferrik. Etorbide nagusira nahi gabe heldu zenerako euria hasia zen gizona blaitzen. Larri baino larriago zebilen zegoenekotz, karri-

kaz bestaldera kafetegi bat ikusi zuenean. Erlaiz baten babespean gelditu zen une labur batez bulkada emateko beta izateko moduan, eta korrika bizian abiatu zen kafetegiko ate aldera.

Indiar ipuin labur bat

Baziren behin bi negel errekako baregune batean bizi zirenak. Batak bazterrean ematen zuen egun osoa, eta besteak berriz, uretan sarturik, putzuan.

Halako batean, uretan iharduten zuenak besteari erran zion:

–«Aizak lagun, ez al haiz hor ezkutuan denbora osoan egoten aspertzen? Hemen ur garbia eta eguzkia gozatzen ditiat; argia eta zeru urdina enetzat zeuzkeat. Atoz hona, bestela ustelduko haiz han gerizapean».

Besteak ihardetsi zion:

–«Lelotu haiz, motel. Hiritzat ur garbi osoak; nik ur motela nahiago diat lasai egoteko. Eta eguzkiak erre egiten dik. Epel negok hemen, gerizapean.»

Eta lehenengoak bere aldetik:

–«Hemen euliak eta eltxoak parra-parra ditiat. Mihia ihalgi baino ez diat egin beharrik gosea asetzeko.»

Eta bigarenak, eztabaidari eutsiz:

–«Eta hemen txitxiburduntzi goxo eta saltaperiko anitz ari dituk egun osoan. Ahoa ireki eta nahi dizkidanak harrapatu baino ez diat egin beharrik.»

Besteak berriz:

–«Uraren musika gozatzen diat»

–«Eta nik uraren ixilia»

–«Guztiek ikusten nautek hemen»

–«Eta hemendik dena ikusten diat»

Arratsa iritsi zitzaien hizki-mizki hartan. Hain sutsu ari zirenez, ez ziren ingurukoaz arduratzen.

Bapatean sugea urpetik hurbildu zitzaion putzuan zegoenari eta… ñam! Amen batean irentsi zuen.

Bazterrean zegoena aitzineratu zen jauzi batean, lagunari zer gertatu ote zitzaion ikustera, eta zuhaixka-adar batean pausaturik zegoen hontza haren gainera jaurtiki zen eta… ñam! Amen batean irentsi zuen.

IRUÑEKO KOMISALDEGIA
2728. testifiku-txostena
Iruña, 1989ko martxoaren 28a

Komisario Jaun Agurgarri hori:

Data-egunaren goizeko bederatzi aldean txosten hau izenpetu dugun agenteak, ohizko errondari ekiten geniola, Etorbide Nagusian somatu genuen zalaparta baten aldera abiatu ginen.

Bertan gizon bat zegoen lurrean etzanda, jendez inguraturik. Gizon horrek zauri sakon bat azaltzen zuen bularrean, ustez bala batek eraginda, atorra odolez blai zeukalarik.

Ohizko segurtasun-neurriak harturik, zaurituaren egoeraz jabetzeari ekin diogu, zegoenekotz hilik zegoela egiaztatuz.

Hildakoaren dokumentazioa eskuratu ondoren, José Angel Larramendi Osés izena zeukala egiaztatu dugu, Virgen del Camino Ospitaleko medikua.

Alboan zegoen beste gizon batek eskuan pistola bat zeukan. Pistolari kea zerion. Azken honi identifika zedin agindu diogu segidan, behin zeukan pistolaz jabetu eta inongo oposiziorik aurkeztu gabe.

Horren izena José Miguel Arana Bea dela egiaztatu dugu, komisaldegi honetan lan egiten duen sarjentua.

Lekuko batek adierazi digunez, José Angel Larramendi izenekoa ondoko kafetegiko atean geldirik zegoela, euriagatik edo, José Miguel Arana ate berberaino heldu da korrika, euriari ihesean. Han, eta bertan José Angel Larramendi zela ohartu gabe nonbait, elkar jo dute.

Horren ondorioz José Miguel Aranak gabardinapean zeraman pistolak tiro egin omen du ezustean, José Angel Larramendik bete-betean jasoz.

Ohizko tramiteak bete ondoren, gorpua gordelekura eraman dute, José Miguel Arana komisaldegi honetara ekarri dugularik.

Jainkoak babes zaitzan.

Patruilakideak
Eusebio Larreta
Antonio Eulza

KOMISARIO JAUN AGURGARRIA

Komisarioak, txostena irakurri ondoren, mahai gainean bota zuen ohizko keinuz. Baina ez zen eskuetan eduki berri zuena errutinako beste guztiak bezalakoa, «etxeko» bati zegokiona baizen, halako hartan.

– «Ez digu batere onik ekarriko arazo honek. Hobe dugu ilunpean uztea» —erran zuen bere baitan, mihia ohi bezala klaskatuz.

– «Areta!» —oihukatu zuen.

– «Zure esanetara, jauna» —erantzun zion inspektore batek komisarioaren gelan sartu ondoren.

– «Arazo txarra dugu Arana sarjentuarena. Arreta haundiz ibili beharra dugu. Erran guztiei diskrezioz aritzeko. Ah! Eta kazetariei tutik ere ez!»

– «Ulertu, jauna». Eta sartu bezala irten egin zen.

Komisarioak besaulki etzangarria gibelera bultzatu, besoak lepondoan jaso, zangoak mahai gainean jarri eta amaitutzat eman zuen kasua.

Zirkulua, halako hartan ere, itxi egin zen barrukoak bilduz eta kanpokoak arbuiatuz.

Eta bazeuden bi lerro urrunkor, espazio borobilaren esparruan bat egin zirenak, batak zirkulu batzu, mila zirkulu besteak ukitu ondoren; biak tangenteak beste tangente, sekante eta era eta tamainu guztietako zirkuluen unibertsoan. Agian haiek ere sekante bihurtu ziren azken unean. Agian zirkulu berezi bat osatu zuten bertan sekante bilakatzeko. Auskalo. Beraien unibertso partikularra izan liteke, ortzimugaren berde-urdinez, eguzkiaren berotasun gorri-horiz, hondartzaren zabaltasun urreztatuaz hornitua.

Eta zorionaren egonkortasun ezinezkoaz, beharbada...